

MUNDUAREN NEGARRA

*Munduak negar dagi,
oiu eta karraxi...
sutan dago, gar bizi.*

*Batzuk geiegikeriz
ta, euren aundikeriz,
txilborra erakusiz.*

*Besteak aundi naiez
dabiltza, gora-bidez,
euren zorrozkeriez.*

*Beste batzuk, tentel,
(gura eta ezin el)
erdi iger ta zimel.*

*Geienak ill ez bizi,
—ta, zenbat zauri gorri!-
negarraren iturri.*

*Gitxi batzuen ona
(askoren ondarena)
nun ete nun zoriona?*

*Danok estu ta larri
(alkar ezin ikusi)
ero ta barregarri.*

*Gitxi batzun indarra
(petrolioaren sugarra)
miseri ta negarra.*

*Zer gertatuko bildur,
(ta ez mami ez azur)
maitasunez ain labur!*

*Ez biotz ta ez buru
(geldorik eta mutu)
gauzak zelan atondu?*

MUNIATEGI-tar SABIN

NOR

*Egillearentzako
aldia bakarra da
beren ekiñean;
len, orain ta geroak
jakituririk ez dau
Aitaren aurrean.*

*Oro, batera, dakus
beraren argitara
jaubetasunean;
eskuetan garoaz
beti, maitasunean
une berberean.*

*Nire lena, nun, zara...?
Negarrez ta pozez
joan zan aldia.
Zer egin zendun gizon
ta Jaungoikoarentzat,
biotz minberia...!*

*Dei garratza entzunik,
zer dagizu, gogoia,
negarren artian...?
Zuzentasunik ez da,
arrokeriz beterik,
gizonen bizian.*

*Zer egin nai zenduke
Jainko Altsu aurrean
gizonen miñetan...?
Otsoak, gogor, dabiltz,
dana ondatu nairik
lurraren bidetan.*

*Samiña dabil nausi.
Zertan dabil gizona
uger ta bizerrez...
Apurtzen ibiliaz,
zer mesede eiten dok
gizonaren alde...?*

PAULIN